

«LAMINERO» ETA LAMINA GOZO-ZALEAK.—Lehen aldiz Erronkarin konturatu nintzen gozo-zaleeri «laminero» eta «laminera» deitzen ziotela, gizonetzkoa eta emakumezkoa «o» eta «a»rekin

bereizturik, naturala den bezala Baina ez edozelako gozo-zaleeri, baizik jatorduetatik kanpo eta erdi-izkutuka janari goxoak harra-patuz ibiltzen direnei batez ere. «Laminero», «Laminera» hitz hau, geroztik Urraul-goian eta Romanzadon ere jasoa dut, eta konturatu naiz alde hoietako Nafarroan oso zabaldua dela. Joakin Lizarraga Elkanokoak, *Urteco igande guzietarako platicac edo itzaldiac* (1846) liburuaren azken orrietan dakarren hiztegitxoan era honetara agertzen du: Laminurria, *golosina*; *Lamitza*, goloso. «Laminero (a)» bertatik datorrela, aski argi dagoela iduritzen zait.

Inoiz pentsau dut «mihina» (mihin-gaina)-ren zer ikusia ote duen. Baina J. M. Barandiaranek *Estelas Funerarias del Pais Vasco* (1970) liburuaren 58garren orrialdean dakarrena irakurririk, sineskera zaharretatik gelditu zaigun hitza dirudi.

Hara zer berri ematen digun J. M. Barandiarangoak: *Bazterretxea* baserrikoak, Barbierrek dionez, gauero, lotara joan aurretik, supazterrean uzten omen zituzten arto-erreak, urdai-atalak eta oporresnea. Gero laminak etortzen eta jaten oparia. Donamartirin laminentzat artoa uzten omen zuten eta haiek jaten eta hango lurretan lan egi esker onez. Uhart-Mixen soro-ertzean zenbait janari nekazari-rik uzten omen zuten; gau hartan laminak etortzen omen eta soroko lanak azkentzen. Ultzama-Arraizko *Sunbillenea* etxeko artzaiak egunero *Abauntz harpeko* laminai kaiku-esnea ematen omen zien. Batzuek diotenez, gaztanbera omen zen ematen zuena. Orozkon pitxar bat sagardo uzten omen zuten laminentzat eta hoek, gauaz, edaten eta pozik beren tokira itzultzen; baina opari hori ager ez ba-zan, upelak hausten omen zituzten.

J. S. M.

